

2002ko Otsaila

2. zenbakia

# Aikor!

*txorierriko aldizkaria*



**KUKUBILTXO**ren  
25. urteurrena  
Zorionak eta urte askotarako!

Aconcagua-Bai solidaritateari-Mikel Artetxe-Agate deuna



# ERITXIA

## BIZIEN HILDE

Goikoelexalde Larrabetzuko auzoa da. Berton badau Bizkaiko historia liburuetan sarritan aipatuten da eleizea, San Emeterio eta San Celedonio deritzona. Eleizeak soineko zabal eta ederreko eleizportalea deko eta, albo baten, hilerrie. Domekatan amak behartute joaten gintzezan lekue da, auzoko agnostikoontzat oroitzapenez beterikoa. Bertora babestuten gintzezan euriek kanpoko olgetea galazoten eusku-nean.

Orduen dozentatik gora lagun ibiliko gintzezan bote-botean, harrapetan, futbollean, amodio deklarazioan edo lehenango zigarroagaz estulke. Heldutxuau gintzezela jakin gendun ping-pongian olgetako mahaien ganean batek daki nozko errege-erreginek batek daki ze papel uger sinatu zeurien. Hilerrie bera be ostonduteko toki parebakoa izaki, atoa

bihurtu gendun jolasleku, baten bat gero lo egin ezinik egoten bazan be. Lantzean baten, hilerriko arduradune dan Casimiro jaun txit bildurgarrie olgetetara batzen jakun, beti be guri ezer esan barik.

Eleizportalia zapaldua aitzakia ederra jakon hiru-lau bardakada emon eta handik botateko. Egie esan, beran aurretik egineko galapadei esker da bat edo beste Uritarrako jokalaria edo atletismo zale. Gaur egun, oster, eleizportalian ez da umeen berbotsik ez aienarik, eta domeketan batzean zirenen fedea nekatu egin dala dirudi.

Orain bestelako bisitariek datoz eleizportalera. Furgoneta bete arribatzen direz, euren jaioterri urrinetik, behinola, gero eta arrotzago jakuzanen kostaldera arribatu zirenean lez. Auzotarrek dinoe diru partidea darabiliela boltsan, eta ez dala ulerga-

rie eleizportalian, kanposantuen ateatan lo egitea, dauen hotzagaz; alfonbrak diru iturri itzela direzela eta badekiela etxea pagetako lain.

Bitartean inork ez deusie esan sutondoan epelera salda beroa hartuten batu eta euren aberri urruneko kontuek kontetako.

Bitartean hipokritoi saldu ezin deus-kuezan alfonbran ganean lo egiten segiduko deurie, akaso, egunen baten, alfonbretako baten ganean sorterrira itzuliko direzen ametsetan.

Bitartean, gauero, hilerrien ateatan, umeauroko olgetak gogoratuko deuriez eta hilerri txiki eta isil hau ez dala aterpe, bizien hilde egotea zer dan ahiztu gurean.

*Testua: Gotzon Barandiaran*



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa  
Tf.: 94 452 34 47  
e-posta: totoan@topagunea.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Maite Aranburu

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Iker Eguzkizaga, Arantzazu Mendiguren, Gotzon Barandiaran, Amagoia Guezuraga, Euskal Herriak bere eskola

Kolaboratzaileak: Jasone Astola, Iñaki Bilbao, Belen Gana, Oihana Astobieta, Fernando Olabarrieta, Sorne Ibaseta, Iñigo Egia, J. Angel Mentxaka, Puri Martinez, Amaia Rementeria

Euskera itzultzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra  
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi  
Maketatzailea: Ainara Torres  
Inprimategia: GZ printek  
Ale kopurua: 4.000  
Lege gordailua: BI 137-02 ISBN 1578-9322



## ZER

## NON

-Eritxia.....	3
-Laburrak eta albisteak.....	4
-Teknologia.....	9
-Erreportajea	
Kukubiltxoren 25. urteurrena.....	10
-Zer deritzozu.....	13
-Zamudiotik Aconcaguara.....	14
-Bai solidaritateari.....	16
-Erleak, izadiaren gakoa.....	18
-Mikel Artetxe: "Herri bat dekogu atzean".....	20
-Eup! Kanteu ala errezeu.....	22
-Sukaldaritza.....	24
-Denbora pasa.....	25
-Agenda.....	26

# LABURRAK ETA ALBISTEAK

## ANIMATU DA, BAI, JENDEA AURTENGO INAUTERIETAN

Sondikakoak jendetsuenak izan arren, beste herrietan ere ospatu dira

Halaxe da, Sondikakoak dira txorierritarron artean indartsuenak, zaharrenak eta jenderik gehien erakartzen dutenak. Gazteon artean, batez ere, erreferentzia dira eta aurten ere horrela izan da. Baina Txorierriko beste herrietan ere bere tokia hartzen doaz.

Beharbada, eskoletan gure herriko ohi-turei eusteko egiten ari den ahaleginaren emaitza izango da gaur egun Txorierrin inauteri garaian ikusten doguna. Eskola gehienetan orain 20-25 urte inguru hasi ziren inauteriak ospatzen. Urte hauetan guztietan txikitatik mozorratzen eta inauterietan parte hartzen hazi direnak dira gaur egungo inauterien protagonistak eta haiei esker bizirik dira gure artean. Handik sortu ziren Sondikakoak, Euskal Herrian daukagun jai egutegi estuan euren tokia hartu dutenak. Beste herrietan eskoletan baino ez ziren ospatzen, baina badoaz apurka apurka herrietara ateratzen. Bestela, aurtengoa ikusi baino ez dugu.

Otsailaren 15ean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek Larrabetzuko frontoia bete zuten bertoko eta inguruetako jendearekin. Ondoren, mozorrotutakoek kalejira egin zuten plazaraino eta, azkenean, saiheskia eta sagardoa dastatzeko aukera egon zen Hori Bai elkartearen.

Lezaman ere barikuan ospatu ziren inauteriak, Udalak antolatuta. Arrastian artisten lehiaketa egin zen humoregile baten laguntzaz. Frontoian afari jendetsua izan zen eta Rio Samba Show taldekoek dantza eta musika karibetarreko ikuskizuna eman zuten. Azkenean, diskoteka egon zen.

Zamudion, lamiak eta trogloditak izan ziren nagusi, zapatuan trikitixaren doinue-tara egindako kalejiran. Tostadak jan eta merienda egin ondoren, Sondikarako bidea hartu zuten gehiene.



Eskola gehienetan duela 20-25 urte inguru hasi ziren inauteriak ospatzen

Derion, barikuan eta zapatuan ospatu zituzten inauteriak. Bertan Lainomendi taldearen saioa, kalejira, argazki lehiaketa eta erromeria egon ziren eta Sutondoan emakume taldeak tostadak banatu zituzten.

Lehen aipatu den bezala, Sondikakoak dira gure arteko inauteri onenak, inolako zalantzarik gabe. Beste herrietakoak barikuan (Sondikako egunik indartsuena zapatua da) edo zapatu arrastian ospatzen dira eta esan liteke Sondikakoen osagarri egiten direla.

Barikuan, Txapelpunk, Any my shock eta Hyssopus izan ziren rock kontzertuan. Zapatuan, berriz, egun betea, beroa eta giro ezin hobea izan zen. Eguna gaiteruen kalejirarekin hasi zen. Ondoren, txikienek pailazoak eta jokuak izan zituzten. Jubilatuei, ohiko bezala, kafea eta pastak eskaini eta txokolatadea egin ondoren,

fanfarrearekin egin zuten sardinaren hileta. Aurretik, mozorro txapelketako sariak banatu ziren. Umeen artean Monja ye-yeak eta Carnaval de Venecia izan ziran saritutakoak. Azkenik, Cinco contra el Calvo eta Ur Gabe taldeen musikak herriko eta inguruetatik mozorratuta etorritako jende pila alaitu zuten eta giro politean aurtengo inauteriei agur eta datorren urtera arte esan zieten.

*“Sondikakoak  
dira gure arteko  
inauteri onenak,  
inolako zalantza-  
rik gabe”*

**Bocateria  
Gatalekoa  
Pizzeria**  
EIXEK EIXERO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSORAN  
ZAMUDIO TELF.: 9 44 32 11 42

**CAFETERIA  
iAZi**  
Eguneko menua eta  
Menu berezia  
JATA KALEA, 2 - BILBOA 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

**Granja  
TERRAZA**  
S.A.T. 6-140  
ARRATZTA BIKAINAK  
EU-SAL HERRIKO PRODUKTUAK  
Aurtalde, 107 - 48106 LEZAMA - GIZKAJA ☎ 455 60 94



## LEZAMAKO PILOTA ELKARTEAREN 43. TXAPELKETAKO FINALA

Otsailaren 8an jokatu ziran Lezamako Pilota Alkarteak urtero egiten dituen esku pilota txapelketa ospetsuaren finalak. Frontoia ia beterik egon zan. Lehenengo partiduan, (Mendiguren I eta Zabala - Beitia eta Gurrutxaga) lehenengok aurretik joiazanean (10-8), partidua bertan bera itxi behar izan zan, Gaizka Mendiguren lezamarrak orkatilea bihurtu eta zantiratu bat egin ebalako. Txapela, beraz, bigarrenentzat izan zan.

Bigarren partiduan, afizionatuena, txapela jantzi ebenak Hirigoien eta Iparragirre naparrak izan ziran, Lopez Aldai eta Tejero bizkaitarren aurka jokaturako partiduan (22-17).



## JONATHAN GONZALEZ ZAMUDIOKO TXIRRINDULARIAK DEBUTA EGIN DU PROFESIONALETAN



Otsailaren 5ean, 19 urteko gazte zamudioztar honek debuta egin zuen Mallorcan. Gainera, nazioarteko tropelean indartsuen dabilen taldeetariko baten egin zuen, ONCE-EROSKIn. Gero, lesio txiki bat zela eta ezin izan zuen Mallorcako bira korritu. Laster sendatu dadila eta zortetik onena opa diogu Aikoretetik Jonathani.

## LOIUKO LINDANO GORDAILUA EGIN ZANEAN LEGEA URRATU ZALA AITORTU DAU EUROPAK

Loiuko aireportuko lurretan lindano gordailua egiteak ingurumeneari eragin handia dakar jakiteko azterketea egitea beharrezkoa dela jakin eragin deitso Europako Batasunak Espainiako Gobernuari. Batasunak kexa bi sartu zituan Europako Batasunean Bilboko aireportua handitzeko eta handik ur hondakin toxikoen dako gordailu bat egiteko egozan proiektuen kontra. Alberto Cristobal, Sondikako Batasunako zinegotziak aitaturakoaren ara-

bera, 1996an Esther Larrañagak, orduko Ingurumen sailbuiurordeak, erabagi eban ez zala beharrezkoa holango azterketarik egitea. Kexak Europako Batasunean aurkeztu eta gero, Espainiako Gobernuari eskatu eutsazan azalpenak alderdi abertzaleak. Estatuko Gobernuak esandakoaren arabera, aireportuaren eta gordailuaren ungaruan gertetan zara Eusko Jaurlaritzaren ardurea zan.

**LEANDRO LANDETA**

**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**  
Oiz Kalca, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**S.A.T. LEGY**

LEZAMA  
Galditza Auzoa, 36  
48196 LEZAMA - Bizkaia  
Tlf. 94 455 61 98  
Fax: 94 455 64 17

**Alfonso Sanchez %**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
N.º 1000000000

Herriko Plaza, 4 - Leizor  
48160 DEIÑO (Bizkaia)  
Tel. 902 400 122 Fax 94 454 06 00  
E mail: info@soguras.es

# EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA



Euskal herriak bere eskola nondik norakoak eta honen berri azaltzeaz gain, gurekin lanean hasteko gonbidapena luzatu nahi dizuegu. Txorierriko ekimen honen aurkezpenaren berri eman nahi dizuegu. Aurkezpena Zamudioko Dorretxean, martxoaren 2an eguerdiko 12etan egingo da.

Euskal Herriko toki ezberdinetako ikaslea, guraso, irakasle zein herritarrok bultzatzen dugu ekimen hau. Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema guztion artean eraikitzeko.

-Euskal herriak bere eskola izateko eskubidea du. Kanpaina honen bultzatzaileok hezkuntzak gizartearen garapenean eta gure herriaren etorkizunean duen garrantziaz jabeturik gaude.

-Euskal Herriak bere eskola behar du. Hezkuntzan aldaketa baikor asko eman dira, herri mugimenduaren indarrari ezker, eta etorriko diren aldaketak ere, herri mugimenduarengandik etorriko dira.

- Euskal herriak bere eskola nahi du. Argi daukagu, hezkuntza sistema propioaren aldeko ekimen honek dituen perspektibatik garatu eta aberastu behar eta nahi duela herri honek bere eskola eredu.

Gure helburua mezua zabaltzeaz gain, herriz herri ikasle, irakaslea, guraso zein bestelako herritarrek batzea da, herri bakoitzean, Txorierri, euskal hezkuntza sistema propioaren bidean urrats berriak emateko beharra eta ilusioa sentiarazteko. Era berean, helburua dugu ere, jendeak dituen kezak eta ikusten dituen beharrak jasotzea.

Bukatzeko, Zamudioko Dorretxean martxoaren 2an, eguerdiko 12etan egingo dugun aurkezpena etortzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu, Euskal Herriko hezkuntza sistemaz zein Txorierriko eskoletaz edo errealitateaz kezkatutik zaudeten ikasle, guraso, irakaslea zein herritarrei. Bertan ikusiko garelakoan:

Euskal Herria bere eskola eraikitzen ari da.

*Testua: Euskal herriak bere eskola*

## SASI MARTXO, KANPO MARTXO, KANPORA MARTXO

Inauterietako aurreko domekan ospatuten dan ohitura honek, izen ezberdinak dauz geure artean. Zezeilaren 3an ospatu zan Txorierri be. Argazkian, Zamudioko sasi martxo dozue. Hainbat urtetan galtzeaz egon dan arren, azken urteotan berreskuratu egin da ohitura zaharra. Bertan, 60 bat lagun, ume, gazte zein nagusi, plaza batu eta trikitixaren eta panderoaren doinuetara Santo Tomas ermitaraino joan ziren oinez. Gero, giro ezin hobean, sua biztu eta txitxiburduntzia egin eben, denporak asko lagundu ez eban arren.



Kudeaketarako Sozietatea  
Birziklitzeko Zentro Aurreratua



Tratamendu lerroak

- Erabilitako olioak
  - Agortutako taladrinak
  - Disolbatzaileak
  - Automozio
- hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragolti Ind. z/g 48170 Zamudio  
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619



**GUEDAN**  
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Herri Kiroldegia S. A. Arabako Errepublikaren 7. Soluzioa, 1. Bilgunea - 48011 BE ERRI  
Telefonoa 94 427 80 10 - Faxa 94 427 87 12  
Zamudioko Post-bonitza: Telefonoa 94 432 21 20 - Faxa 94 432 30 74

# "SAN BIZENTI HOTZA NEGUKO BIHOTZA"



Neguko solstizioak hainbat ospakizunen hasiera markatzen dau: sasi martxo edo kanpo martxo, Santa Ageda, Inauteriak... Guztiak baserri munduaren inguruak dira.

Jai honeek komunitatearen bizi-tza eta erritmoak markatzen ditue. Errito honeek bat datoz naturari lotutako zikloekin; esaterako, inauteriak

inauste garaian ospatzen dira.

Aro honi sasi martxoko ospakizunak ematen deutso hasiera. Taldeek merienda eginez ospatzen dabe. Herri taldea da inauteriak ospatzen dituna. Mozorroak eta jan edanak apurtzen ditue erritmo hotzez etorriko diran egunak, ezerezeko egunak.

Beste alde batetik, maskaririk, koloreak, hotsak (joaldunak, makilak...), lotan dagoen natura pizten dabe.

Makilak eta koplak zaharrak nagusi dira Agate deunaren emakumeen eta bularreko umeen zaindaria den martiria-bezperan. Toki askotan emakumeak nagusi dira egun honetan ("fiesta de la comadres"), baina hemen kintoek hartzen dabe jai. Inauteria ziklo aldaketa baten pausua izanik, Santa Ageda eguneko kintoen jai "pasoko erritoen" barruan kokatzen da.

Komunitate baten ospakizuna da. Talde honek kategoria aldaketa izango dau bizitzan: adinean nagusi izango da, soldadizkera irtengo da...

Bere identitatea eta elkartasuna biribilean abesten adierazten dabe. Unitatearen sinbologia da. Eta makilen hotsa erritmoa markatzeko da edo komunikazio mota bat da?

Honeek eta herri tradizioen beste hainbat azalpen euren balore sinologikoen azterketaz erakutsi behar dira.

*Testua: Amagoia Guezuraga*

# PIRRITX ETA PORROTX ZAMUDION

Pasadan otsailaren 5ean Pirritx eta Porrotx pailasoak Zamudion izan ziren umeen artean umorea eta poztasuna banatzeko. Bikote honek Zamudioko Dorretxean berrogeita hamar ume baino gehiago batzea lortu zuen. Beraien joko eta txisteekin, han zeuden begirale txikiei arratsalde zoragorri bat iragan arazi zieten.



# BIZKAI EUSKARAN ZUZEN IDATZI ETA HITZ EGITEKO LIBURUA

Labayru Ikastegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskariz egindako "Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausua" izenburuko liburua argitaratu berri du. Liburua, oro har, bizkai euskara landu nahi duten guztiei zuzendurik dago, eta bereziki, biz-

kaieraz hartuemanak dituzten eta egunero darabiltzatenei, hots, irriti-esatariak, egunkari edo aldizkarietako kazetariak, irakaskuntzako profesionalak, euskara trebatzaileak eta itzultzaileak, besteak beste.

Gemikako Arbola Etorbidia, 2  
(sarrera Goiko Kaleetik)  
Tfona.: 94 454 20 13  
48160 DERIO (Bizkai)

CLINICA DENTAL  
**ZAINDUZ**  
BOHIZ KLINIKA

Jesus Enrique Lopez Hidalgo  
Odontologo  
Dr. D. Manuel Serra Cabrera  
Ortodontzia

Enfermería de Urgencia 24 Horas  
Tel. 91 500 00 00  
www.zainduz.com

**Iuz zamudio**  
ARCI APARATUAK

Unibertsitateko 1. (1. solte) Telefonoa Aste Paz 94 452 11 60 - 48170 Zamudio (Bizkai)




# ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

## Alzheimer gaixotasuna garaiz diagnostikatzeko beste urrats bat

Gaur egun Alzheimer gaixotasunak ez du tratamendu eragin-  
korrik, baina garatzen hasten denean detektatu ahal izanez gero,  
egoera hori alda liteke (litekeena da gaixoak lehen hamabost  
urteetan sintomarik ez nabaritzea). Kontuan hartu behar da  
garrantzi handiko gaixotasuna dela herri aberatsetan, esaten  
denaren arabera, herri horietan 65 urtetik gorako hamar pertso-  
natik batek garatu duelako.

Une honetan ikerketaren gakoa gaixotasuna lehen urratsetan  
diagnostikatzeko metodoaren beharra da. Helburu horrekin egin-  
dako proiektu baten berri eman du Journal of Geriatric Psichiatriy  
aldizkariak. Jorge R. Barrio eta Gary Small UCLA unibertsitateko  
doktoreek garuneko positroien igorpen-tomografian markadore  
izan daitekeen konposatu kimiko bat prestatu dute. Substantzia  
hori, FDDNP izenekoa, gaixotasunak hondatutako garunaren  
guneetan metatzen da. Horrela, gune horiek tomografiaren bitar-  
tez detekta daitezke, nahiz eta txikiak izan eta sintomarik eragin ez.

Gaixotasuna garaiz detektatuz gero, degenerazioa moteltzeko  
tratamendua egin dezake pazienteak. Agian, etorkizunean diag-  
nosi goiztiarrerako metodo hori ohiko azterketa medikuen parte  
izango da. Oraingoan, Barrio eta Small ikertzaileen hurrengo hel-  
burua metodologia hori botika terapeutikoen jarraipena egiteko  
egokitzea izango da.



Pertsona osasuntsu baten garuna (ezkerrean) eta Alzheimer gaixotasu-  
na duen beste batena (eskuinean).

## Behi-esnea eta minbizia

Behi-esnea dietan sartzea oso mesedegarria izan daiteke min-  
bizi batzuen prebentziorako.



Behi-esnearen CLA azidoa oso eraginkorra da  
minbiziari aurre egiteko.

Behi-esnearen CLA  
azidoa oso eraginkorra da  
minbiziari aurre egiteko.

Behi-esneak CLA (Azido  
Linoleiko Konjokatua) izene-  
ko azidoa du, gutxi bada ere.  
Gantz azido hau behien  
sabeleko bakterietan era-  
tzen da. Esperimentu

batzuei esker jakin da CLA-k melanomari eta leuzemiari aurre egi-  
ten diela; honez gain, bularreko, koloneko, obarioetako eta pro-  
statako minbiziak ere prebenitu egiten ditu.

New Yorkeko ikertzaile batzuek, aurkikuntza hori aintzat har-  
tuta, behien dieta aldatu nahi dute esnearen CLA azido-kopurua  
igotzeko. Ikerketa batek dioenez, 70 kiloko gizaki batek 3-5  
gramo CLA azido behar ditu egunero.

EEBBetako biztanleen batezbesteko dietak, aldiz, gramo bat  
besterik ez du osatzen. Ikertzaileek esan dutenez, gantz-azido  
mesedegarri hau bereziki esne osoan aurki daiteke; esne gainga-  
betuak ez du CLA azidorik eta erdigaingabetuak CLA azidoen  
%60 baino ez du.

Albaitaritza  
  
**DERIO**  
HENAR ORTUONDO  
ALBAITARIA  
Abel Txarra 3/leku  
Tfnoa: 94 43 28 71  
ANAN 2/leku (Madril)  
1. ARRATZAK 24 ordutik.  
Tfnoa: 94 43 28 71 - Berritoa, 1002

  
**HOTELA**  
**JATEKETA**  
**ERTEK + ERTEK**  
Ober C/Argosentratu  
Arriaga sarea, 62  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefono: 94 43 41 17  
Fax: 94 43 17 16  
E-mail: hotei\_ancs-errea@telefonos.net

  
**GRUPO "ACOFISA" ASESORES**  
CONTABLE-FISCAL-LABORAL-JURIDICO  
  
Luis Fernando Aguirre  
  
Mateo Bidaurrezaga, 1 - bejo  
Tfno: 94 453 33 28  
Fax: 94 453 33 50  
48150 SONDIVA - Bizkaia  
  
Nervion, 3 - 6º - Dpto B-2  
Tfno.: 94 423 42 42  
Fax: 94 423 61 70  
48001 BILBAO

**KARMELO**  
**HARATEGIA**  
BERTOKO OKELA  
ETXEKO PRODUKTUAK:  


- Txorizoak
- Odolosteak
- Pintxoak
- Mihia
- Tripakiak
- Piper beteak
- etabar.

Urkiola Kalea, 4  
Tfnoa.: 94 454 30 48  
DERIO

# Kukubiltxo

ANTZERKI TALDEA S.C.L.



## ZORIONAK !!

Testua: Maite Aranburu

**Kukubiltxo txotxongilo antzerki taldeak 25 urte bete ditu aurten, 1977an sortu baitzen gazteak zein nagusiak entretenitzeko asmoz. Hori dela eta, hizketaldia egin dugu Josu Camara taldearen zuzendariarekin eta Larrabetzuko antzerki talde honen nondik norakoak kontatu dizkigu.**

### **Zeintzuk dira Kukubiltxoren hastapenak?**

Josu Camara: Toti Martinez de Lezea eta Alberto Albeiza senar-emazteak Larrabetzura bizitzen etorri zirenean sortu zen Kukubiltxo. Txotxongilozale hauek Larrabetzu oso herri dinamikoa zela ikusita, Hori Bai taldearekin batera, herriko umeentzako txokolatada bat antolatzearabaki zuten, gazteen aurrean txotxongiloekin ekitaldi bat egiteko. Ekitaldi horretara batu ziren gazte askok txotxongiloen euliaren hozka sentitu zuten eta 16 edo 17 zeuzkatelarik dabilta friso artean.

### **Amateur moduan bost urte egin ondoren, 1983an profesionalizatzea erabaki zutenen...**

Egia da. Hasieran jolas moduan hasi bazen ere, gerora arduraren profesional bihurtu zen. Alde batetik, 16-17 urte gazteak hasitako gaztetxo haiek 25 urteren bueltan zebiltzan eta arduraren gehiago hartuta zeuden ikasketetan zein lanean. Beste alde batetik, euren lana egokia zen eta eskaria ere asko handitu zen. Beraz, erabaki bat hartzeko momentua heldu zitzaigula pentsatu genuen: dena bertan behera uztea edo profesionalizatzea.


### **Hasieran txotxongilo klasikoekin lan egiten zutenen; ondoren, hankapaluak eta erraldoiak sartu zenituzten. Zerk eragiten du aldaketa prozesu hori? Zertan oinarritzen zarete?**

Esan daiteke urte hauetan guztietan izan ditugun harremanek mugatu egin dituztela gure pausoak. Hasierako Kukubiltxon, batez ere, esku-panpinak erabiltzen genituen. Geroago, Suediako Odin Theatretik antolatutako Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdia ikusi eta berehala geureganatu genituen hankapaluak. Hortik aurrera, zankak, eta beste teknika batzuk erabiltzeari ekin genion.

Horretaz gain, profesionalizatu ginenean, Karraka konpainiaren eta Ramon Barearen eskutik beste dramaturgia mota batzuk ikasi genituen. Horren ostean, haien dramaturgia eta gure estetika nolabait uztartuz, gure lehenengo koprodukzioa egin genuen: "Oficio de Tinieblas". Lan horrek, nolabait, Kukubiltxoren beste belaunaldi bat ekarri zuen. Handik gutxira, aurrekoarekin zerikusirik ez zuen beste aro bat etorri zen Erramun Landarekin eta beste estetika bat, guztiz berezia, jorratu genuen. Geroago, Mikel Diaz eta Estefarekin aritu ginen lanean; horiek Arte Ederretatik irten berri ziren gazte bi ziren.



Kukubelt ikuskizuneko pertsonaiak



Handik aurrera, berriro ere beste aro bati eman genion hasiera. Ordukoak dira Oskorri taldearekin batera egin genituen lanak.

**Beste alde batetik, Kukubiltxok 20 urte bete zituenean, Kukubel estreinatu zuen eta, orduan, beste salto bat eman zuen: kalean zein barruan egin daitezkeen ikuskizunak.**

Ekidazu da 25. urteurren honetan estreinatuko dugun lana. Hau gure bosgarren ikuskizuna da ipuinekin lan egitea erabaki genuenetik. Gaurko gaietan gehiago sakondu nahi dugu lan berri honekin. Horretarako, Mikel Zarate Lezamako idazlea hartu dugu erreferentzia moduan. Omenaldi antzeko zerbait egin nahi diogu.

*“Heldutasun honetara heltzen zarenean, aire eta dinamika berriei atea sabaltzeko momentua heldu dela pentsatu behar duzu”*

**Bizipen horiek estilo propio bat lortzea lagundu dizue...**

Kukubiltxok 25 urte hauetan esperientzian oinarrituriko ildo bat jarraitu du. Gainera, bizitako esperientzia guztiek izugarritzko oinatza utzi dute taldeko estetikan.

**Zelako garrantzia izan du musikak zuengan 25 urte hauetan?**

Garrantzi handiko elementua da guretzat. Ikusi ezin den arima eta barne erritmoa ematen die ekitaldiei. Aldi berean, ikusleak konturatu barik, bizitasun eta arima horretan murgiltzen ditu, sentsazio ona biziaraziz. Gainera, musikak partehartze handiagoa izan du azkeneko hiru ikuskizunetan. Izan ere, protagonista izan da dramaturgiaren barruan, pertsonaia baten moduan.

**Ze ikusle motari zuzendua dago zuen ikuskizuna?**

Beste antzerkietan dagoen espezifikotasun hori apurtu nahi dugu eta, horretarako, ikusle guztientzako ikuskizunak egin nahi ditugu, gazte, ume zein nagusientzat. Umeentzat egindako antzerkiak hizkera berezi bat, antzetzeko modu bat edo moralina bat izan behar du...Guk didaktizismo arloa ez dugu ezertarako jorratu nahi, entretenitu eta transmititu besterik ez baitugu egin nahi.

**25 urte hauen balantzea egitekotan, zein izan da gertatu zaizuen gauzarik onena eta txarrena?**

Ezagutu eta izan ditugun harremanak lortzea izan da gertatu zaigun gauzarik onena. Hasi ginenean, artean oso gazte ginela, Pedro Barea bezalako artista bat gureganatu zenean... Sentsazio hori izatea ezin da ordaindu. Ondoren, Oskorrikoekin lanean hasi ginenean, milaka umeekin egon



Txirrikisikuskizuneko pertsonaiak

**BIRIXI**  
Itzulpentzalea eta Leletaria

Parroquia, 6  
48176 ZAMUDIO

Tel: 94 403 72 80  
94 403 72 82

SINDIATU FISKUA  
KIBULUAKU GARRELA  
1519-18


Nocho & Aitziber  
Birixinaga

Parroquia, 6  
48176 ZAMUDIO

Teléfono: 94 403 72 81

**CEB**  
Refundación  
Cina & Belén  
relativa - solarium

C/ Parroquia, 1 - Parroquia  
Tel: 94 403 72 80  
48176 ZAMUDIO



ginen elkarlanean eta izugarria da hainbat ume zure aurrean dantzan pozik eta alai ikustea.


Txarrena, berriz, gure kide Mikel eta Estefanen heriotza izan zen. Oso momentu txarrak pasatu genituen. Horrezaz gainera, orain hamar urte kide bat atxilotu zuten eta egoera latza izan genuen taldean. Maila txikiagoan, orain hiru urte lokalak sua hartu zuen eta orduan ere nahiko txarto pasatu genuen.

### Zelan ikusten duzu Kukubiltxo hemendik beste 25 urtera?

50. urteurrena ospatzeko gogoz! 25 urteotako emaitza ikusita, beste 25 urtean lan egiteko gogoia daukagu; hori da ateratzen dugun ondorioa. Ziur nago, berriro ere, prest egongo garena bost mila esperientzia horietako bost mila pertsonekin lan egiteko eta bost milioi begiekin gozatzeko.

### Hemendik aurrera, zeintzuk dira zuen objektiboak?

Bereziki daramagun hildoan sakontzea da gure objektibo nagusia. Bide onean gabiltzala uste dut. Heldutasun honetara heltzen zarenean, aire eta dinamika berriei atea sabaltzeko momentua heldu dela pentsatu behar duzu, nolabait, gure burua berriztatu.



### Larrabetzuko umeon ametsak

Ametsa beti gauz emoten da, lo. Guk, larrabetzuarrok egunez be egin dogu ametsetan. Egunez ibili gara gure fantasiak aieratzen. Azken 25 urteotan, Kukubiltxoren lanak egunez, begiak zabalik direla ametsetan jarri gaitu. Antzerki taldea baino zeozer gehiago dan Kukubiltxok gure herriko zein Euskal Herri guztiko umeak ametsetan jarri ditu.

Eta Kukubiltxo gure bizitzaren zatia da. Zati oso garrantzitsua. Atzera begiratu eta barre algarak, koloreak, panpin ezin handiagoak, musika, hankapaluak, antzerki obrak ikusten doguz geure memorian.

Eta hor dauz, bizitzako zati garrantzitsu moduan. Larrabetzun, edozein adinetako umeok, Kukubiltxoren zati bat daroagu gugaz. Gainera herriko gazte ugari, Kukubiltxoren garai ezberdinetan be antzerki taldeko partaide izan da, bai modu amateurrean zein profesionalean. Gerora ere, belaunaldi barrietako partaideak be izango diren esperantza badogu, aspaldian antzerkilarri barririk ez dalako sortu gurean.

Baina Kukubiltxo ez da antzerki taldea bakarrik. Kukubiltxo larrabetzuarron bizitzan bestela ere egon da. Bere umorea, sormena, lokala, furgoneta, musika ekipoa, hankapaluak... danok erabili doguz, erabiltzen doguz, erabiliko doguz. Kukubiltxo Larrabetzuren zati da. Jai batzordean, umeen egunean, hankapalu egunetan, Gazte Egunean, antolatzen diren jai eta ekitaldietan.

Kukubiltxo beti laguntzen dabil, eta horregatik guk ahal dogun neurrian laguntzen dogu Kukubiltxo. Eta hori ere ametsa. Egi bihurtzen dan ametsa. Kukubiltxo Larrabetzu eta Euskal Herriko zatia da. Eskerrik asko.

*Testua: Patxi Gaztelumendi*





**KALITATE BIKAINA. BEREHALAKO ERANTZUNA.**

- Hormigoi-kamiak ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarra

Torreanrogaiti ind., 7-9 • 48170 Zamudio • Bizkaia  
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65  
E-mail: hormizamudio@jazzfree.com

**GAMINIZ**  
RESTAURANTE



AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke teknologikoa Tel. 94 431 70 26  
Haztegia 717 E-mail: gaminiz@euskaltel.net  
48170 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizrestaurant.com



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

## EZAGUTZEN DUZU KUKUBILTZO?



Karmel Etxebarria

Bai. Oso gustukoa dut bere estiloa. Uste dut antzerkigintzari eta euskal kulturari ekarpen izugarria egin dietela. Gainera, denok barruan daramagun umetasunakaleratzen laguntzen du.



Ander Olabarrieta

Ez dut inoiz beraien obrarik ikusi, baina entzuna dut nahiko onak direla.



Amagoia Diez

Zenbait ikuskizun gozatzeko aukera izan dut. Badirudi gehienbat umeentzako ikuskizunak egiten dituztela, baina nagusientzako oso lan entretenigarriak egiten dituztela uste dut. Oskorrirekin egindako kolaborazioa egin duten onenetarikoa dela uste dut.



Ibai Mozo eta Borja Puente

Ibai: Niri asko gustatu zitzaizkidan, gehienbat, harri eta dragoi formako txotxongiloak!  
Borja: ikuskizun bat besterik ez dut ikusi eta ume txikientzat egina zegoela iruditu zitzaidan.



Josune Zabala

Lezamako frontoian ikusi nituen lehengoz eta oso onak iruditu zitzaizkidan. Gainera, ume zein nagusientzako ikuskizunak egiten dituzte.



Ibai Aurtenetxe, eta Jonathan Atxutegi

Beraien ikuskizun bat besterik ez dugu ikusi, baina nahiko entretenigarria iruditu zitzaigun. Gainera, aita-amak ikusteko modukoak direla uste dugu.



Ander Elgezabal eta Eñaut Atxutegi

Baten ikusi genituen, eta gehien gustatu zitzaiguna, erabiltzen dituzten izugarriko panpinak ziren. Dragoia ikaragarria zen!



**GARAIOLTZA, S.A.**  
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

**LEZAMA**

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

**TF.: 94 455 50 19**


Garaioltza auzoa, 128 (behea)  
Lezama (Bizkaia)

WASCOLAC SL  
40170 Zamudio (Bizkaia)  
94 452 23 30 (fona)

Dituzkan barutako esneaguz egunean egunean GAILLA gazta tres  
ATUJKA San Jakobek eta Anjelok  
BARANETA DENDETARA, JATEXETARA,  
TABERNETARA ETA JATONJETARA  
Hainbat euskal produktuen distribuzioa:  
edonon-mobilen esneak, txoritak, txoritak, txoritak, txoritak, txoritak

# ZAMUDIOtik...

Iker Eguzkizaga eta Iñigo Egia zamudioztarrak urtarilaren 4an irten ziren Bilbotik Argentina aldera, 6.959 metro dituen Aconcagua mendia igotzeko.



# ACONCAGUAra

*“Honaino heltzeko lan asko egin ondoren eta ilusio handia eduki arren, mendiak bizkarra eman zigun”*

*“Ekonomia aldetik guztiz apurtuta zegoen herrialde bat ezagutu genuen. Jendeari emateko behar beste paper moneta ere ez dago”*

Espedizioa, berez, Mendozan hasi zen, Buenos Airestik 1.100 km-tara, baina, aldez aurretik ordu asko pasa genituen prestatze lanetan (azpiegitura, materiala, informazioa). Azkeneko prestakizunak Mendozan bertan egin genituen: igotzeko baimena, janaria erostea eta behar genituen garraiabideak koordinatzea (altuerara egokitzeko igoko genituen mendietara eta handik Aconcaguako parke naturaleko sarrerara joateko behar genituen garraiabideok). Dena ondo joan zen eta, Buenos Airesera heldu eta handik egun bira, aklimatatzeko aukeratutako mendietan ginen (Vallecitos).

Bertan ez genuen arazorik eduki altuerara egokitzeko. Handik astebetera Aconcaguako beheko kanpamendura (Plaza de Mulas) abiatu ginen. Aklimatatzeko lanak egun gutxitan amaitu genituen beheko kanpamenduan eta prest geunden igotzen has-teko.

Plaza de Mulasera eguraldi ederrarekin heldu ginen, baina igotzen hasi orduko, “fronte patagonikoa” delakoa etorri eta gauzak okertzen hasi ziren: goizetan eguzkia jaun eta jabe ibiltzen zen, baina eguerdi aldera elurtea eortzen zen eta tenperaturak beherantz zihoazen. Elurra pilatzen hasi zen Aconcaguako aldatsetan.

Goiko kanpamendua Nido de Cóndores izeneko tokian (5.400 m) jartzea erabaki genuen, handik tontorrera heltzen saiatzeko. Baina elur asko eta asko zegoen eta kota horretatik gora elur oldeak izaten ziren (hori ez da batere normala sasoi horretan). Hurrengo egunetan eguraldiak ez zuen hobera egiten eta eguraldi-aurreikuspenak ere txarrak ziren.

Azkenean, behera jaistea erabaki genuen. Honaino heltzeko lan asko egin ondoren eta ilusio handia eduki arren, mendiak bizkarra eman zigun. Hala eta guztiz ere, altueraren eragina ezagutu dugu eta ondo egokitu garela ikusi dugu. Beraz, pozik gaude horrekin.

Ekonomia aldetik guztiz apurtuta zegoen herrialde bat ezagutu genuen. Jendeari emateko behar beste paper moneta ere ez dago; bankariek eta politikariek herrialdea larrutu dute. Naturaren baliabideak handiak dira bertan, baina ezin dituzte erabili, orain urte asko atzerriko multinazionalei –batez ere, Espainiakoei– saldu zizkietelako. Buenos Airesen egunero egiten dira manifestazioak protesta egiteko, banketxeen eta truke-etxeen aurrean jende ilarak osatzen diren bitartean. Argentinan batzuekin hitz egin genuen eta guztiek zuten obsesio bat: Europara lan egitera etortzea. Izan ere, jada ez zuten sinesten euren herrialdean eta euren politikariengan

*Testua eta argazkiak: Iker Eguzkizaga*

# BAI SOLIDARITATEARI

Behar-Bidasoa gobernuz kanpoko erakundea irunen sortu zen, orain dela hogeita bost urte. Aurretik, baina, bertako abade bat Ruandara abiatu zen, behartsuenei laguntzeko erarik onena eurengana joan eta eurekin lan egitea zela pentsatuta.

Urteak aurrera joan ahala, hainbat boluntariok, abadeari laguntzeko asmoz, dirua eta beharrezko materiala batzen hasi ziren behartsuenei bidaltzeko.

Hogeita bost urte honetan, lagun talde honen lan eremua handituz joan da eta, gaur egun, familia handi honen partaideek munduko hainbat herrialdetan kolaboratzen dute irribarre soil baten truke.

Kolaboratzaile talde desinteresatu horietako bat Lezaman aurki dezakegu, bertan baitago Behar-Bidasoa-ren ordezkari bat. Pereira herrian (Kolonbia) bizi direnei laguntzea da lezamar hauen lanaren helburua. Horretarako hainbat ekimen antolatu dituzte.

Jasone Astola Lezamako bolondres horietariko bat da eta, ordezkariaren sorreratik, beste kideekin batera, borondaterik onena eskaintzen dabil Pereirako auzune bateko biztanleei.

## Zelan bururatu zitzaizuen gobemuz kanpoko erakunde bateko partaide egitea?

Pereira herriko Las Brisas eta El Danubio auzoetan lanean zebiltzaten moja batzuk ezagutu genituen eta, beste alde batetik, bagenekien Behar-Bidasoa-koak ere handik zeudela lanean. Handik denbora batera, Irungoek hango lana utzi behar izan zuten, dirudienez, ezin zutelako lan guztia eurek bakarrik egin. Beraz, euren ereduari jarraitzea erabaki genuen.

Hasiera baten, umeen egoera hobetzeko kanpaina abiarazi genuen. Babesleek hilean hiru mila pezeta jartzen zuten eta horrek ziurtatu zuen umeen bizi-kalitatea hobetzea. Aurrerago, proiektu garrantzitsuago batzuei ekitea erabaki genuen. Hala ere, oraindik jarraitzen dugu umeak babesteko kanpainarekin.

## Zein da zuen lana Pereirako auzo horietan?

Gehienbat, Las Brisas auzoan lanean dabiltzan moja batzuekin kolaboratzen dugu. Moja horiek lanbide bat ikasteko aukera ematen diete emakumeei lantegi batzuetan. Bertan, zapatak egin, ilea apaindu edo josteko aukera dute.

Emakumerik gehienak oso gazterik hasten dira umeak ekartzeko eta aitek ez dute umeen erantzukizunik hartzen. Oso normala da sei edo zazpi seme-alaba edukitzea eta horiek lau aitarenak izatea. Beraz, emakume horiek libreak izatea da mojek lortu nahi duten helburua, hau da, gizonekiko duten mendekotasuna gutxitzea.

Guk Euskal Herrian dirua eskatzen dugu, mojen beharrezko erantzuteko. Dirua, gehienbat, erakunde ofizialetan lortzen dugu. Eroski hipermerkatuek ere diru laguntza garrantzitsua eman ziguten Pereirako emakume eta umei laguntzeko. Laster Txorierriko Mankomunitateari eta BBKri eskatuko dizkiegu diru-laguntzak.

## Zein da ume horien egoera?

*“Mojen helburua emakume horiek libreak izatea eta gizonekiko duten mendekotasuna gutxitzea da”*

ERREKA ONDO  
ETXEA

Eguneko menua, arratsko menu berria, karta, egospen berkiak, jantziak, txerriko berkiak

Auzoa: 80  
Zuzendaria: 81 70 (Bikala)  
Telefonoa: 94 432 14 19  
Faxa: 94 432 28 29

Cataluña

**Pozgarri**  
Hamburguesa

Berrikidatutako  
Hainbat menu  
Eroski-komunitateak  
Guztiz  
Udako menu berria


944 543 599  
Gentilak Artoa, 4 - 48100 DEUSTO

Eguneko menua, menu berria, dastatuko menua,  
karta, berkiak, gazak, potak, gozakiak

**ZIRIKADA JATETXE**

CRISTELUMENDI PLAZA, 1 48160 DEUSTO  
TEL. 94 454 50 45





Auzoa mendi-maldan eraikita dago, eta euria uharka egitean, txabolak arrastatu edo urak hartzen ditu.

Askotan entzuten dugu hirugarren munduko umeak pobreak baina zoriontsuak direla, baina ziur gaude, orain arte ikusitakoa ikusita, hori ez dela inondik ere egia.

Pasa den udan Pereirara joan ginen, bertako bizimodua ikustera. Harrituta geratu ginen umeen begiradan somatzen den tristura ikusita. Konturatu ginen itzelezko maitasun falta dutela.

### Zein da zuen hurrengo proiektua?

Momentu honetan, azkeneko paperak egiten ari gara edukiontzi bat bidaltzeko. Lan neketsua izan da, baina, azkenean, ohatilak, fonendoskopioak eta erizaindegi txiki bat antolatzeko funtsezko tresnak lortu ditugu.

Horrezaz gainera, Pereirako mojak harremanetan jarriko dira osasun arloko arduradunekin. Astean behin edo bitan osagile bat joateko akordioa lortu gura dute.

### Konpentsatzen du horrelako proiektu batean laguntzeko?

Oso lan gogorra da, baina merezi du hain bihotz handiko pertsonen laguntzea. Benetan laguntzaren premia dute. Oso kidetasun sendoa sortzen da, lotura emozionala indartsua da. Gainera, oso esker onekoak dira eta esan daiteke, eman baino gehiago, jaso egiten duzula.

### Zer esango zenieke txorieritarrei zuen erakundearen laguntzeko?


Informazio gehiago:

BEHAR-BIDASOA Amigos del Tercer Mundo O.N.G.  
Bizkaiko ordezkari (delegación de Bizkaia)  
Garaioltza auzoa, 108  
P.K 48196 Lezama  
Telefonoa: 94 455 50 58  
Kontu korrante zenbakia: 2095-0051-809101924570  
Web orria: [www.beharbidaso@izar.net](http://www.beharbidaso@izar.net)

## “Harrituta geratu ginen umeen begiradan somatzen den tristura ikusita”

Gure elkarte zabalik dagoela laguntzeko gogoz datozeneztat, bai laguntza ekonomikoa emateko zein pertsonalki laguntzeko. Guk badakigu gobernu kanpoko erakunde baten helburuak bete egiten direla epe luzera, baina astiro-astiro jendea gugana hurbildu eta identifikatu egingo dela uste dugu.


Testua: Maite Aranburu



2002  
urte oso bat aurrezteko

**EROSLE //**

LARRABETZUKO EROSLE.  
Iturriena, 2-5. Larrabetzu

  
**LIBRERIA  
SONDIKA  
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK · ESKULANAK, E.A.


**JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN**

Fotokopiatuak, koadernaketa, plastifikatuak,  
prentsa, aldizkariak, liburak,  
papergintza eta eskulariak

Mikel Zarate, 2 · Tel. / Fax: 94 453 16 77  
48190 SONDIKA (Bizkaia)

**HARATEGIA**  
**J. ELORRIAGA**

Etxeko berezitasuna: bertoko tikela



Iturriena, 7 · Ibiloz: 94 455 89 41 LARRABETZU





Erlezain honen aburuz, eukaliptoaren loreak ezirik onena ematen du

Erleek hartzen duten lorearen arabera, ezti mota ezberdinak aurkitu ditzakegu:

**Lore askoko ezti:** usain eta gustu apartekoa du eta kolore askokoa izan daiteke.

**Basoko ezti:** haritz, gaztaina eta arte loreekin egiten da, oso usaintsua eta gustu garratzekoa da.

**Ezti lorebakarrekoak:** txilar, ezkai, erromero, eukalitu eta arkazi loreekin egiten da eta oso estimatuak izaten dira kalitateagatik eta usainagatik.

direnak. Era berean, ondo daki ez direla baliabide guztiak agortu behar, izan ere, oso sentikorrek dira eta euren bizimodu propioa dute.

Horretaz gain, zamudioztar honek argi dauka zein den primerako ezti egiteko sekretua: inoiz ez da kutsaturiko materialik erabili behar ezti egiteko. Aurreko urtean ezti beratzeko erabilitako kaiku berbera erabiltzen dute askok. Eztiak bereak ez dituen hainbat zapore eta usain ematen dio horrek.

Honi jarraiki, Juanen iritiz, erleei ez zaie inolako azukre gehigarrik eman behar. Erlezain honentzat funtsezkoa da erleek ezti egiteko duten era naturala errespetatzea, osterantzean, urre kolorea duen ezti hori faltsutu egingo da.

Beste gomendio bat, erlatalde makalak batzea litzateke. Horrek, erkauntza indartsuago bat edukitzea ahalbidetuko luke, aldi berean, erreginaren aldizka berritzeak hobetuz.

*Juanek erleei ez die inolako gehigarrik ematen, ahalik eta ezirik puruena egin dezaten*

Errementeiri Kalea, 22  
Tfno.: 94 453 57 54  
Fax: 94 453 58 31  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**ALDIZKARIA JASO  
GURA DUENAK  
DEITU BAINO EZ DU  
EGIN BEHAR**

**TLNOA: 94 452 34 47**

**EDO E-MAILEZ ESKATU**

**[aikortxori@yahoo.es](mailto:aikortxori@yahoo.es)**

# Mikel Artetxe:

## "Herri bat dekogutu atzean"



Euskadi-Euskaltel taldeko txirrindularia da Mikel Artetxe. 25 urteko larrabetzuar honek 4 denboraldi daroaz profesional moduan txirrindularitzan. Aurtengo denboraldia hasita dago, eta Frantzia astebete ibili ostean, barriro be Andaluzia aldetik ibili da. Tartean entrenetan ikusi dogu gure herrietatik zehar, berba eiteko be asti asko barik.

### Zenbat urte daroazuz bizikleta gainean?

Hasi gazte gazterik hasi nintzen, eta uste dot karreretan edo 14 urte eroango dotazela. Txorierrri ekipoan hasi nintzen, gero Zornotza-Amorebietara joan, handik Beasainera eta gero afizionatuetako azken urteak Olarran ein nituen. 21 urte gazte profesionalerara pasatu nintzan, eta Euskadi taldean hau izengo da neure laugarren urtea.

### Eta lau urte honetan, zein da izan da momenturik onena?

Duda barik, bigarrena. Oso fuerte hasi nintzen, eta, besteak beste, neure lehenengo buelta –Euskadi-Euskaltelen lehenengo gainera- irabazi neuen

Portugalen. Andaluzian be etapa bat irabazi neuen eta oso urte ona izan zan. Benetan gogoraten dot urte hori.

*"Txirrindulari guztiak gazteak eta gazteak gara, horrek, talde berezia izatea sortzen dau"*

### Ekipo berezia da zuena ezta?

Bai, oso talde bitxia da. Oso diru gitxigaz hasi zan. Azken baten jendean diruagaz eginiko fundazio bat da. Baie denboragaz talde handie egin da.

Ondiño be, gehienak oso gazteak gara, eta urtero-urtero jende barria eta gaztea sartzen da. Hori da taldearen izpiritua eta hori ez da aldatu behar. Txirrindulari guztiak, gainera, euskaldunak gara eta horrek be sortzen dau talde berezia izatea. Aurrerantzean be, hori mantendu egin beharko da.

### Zer aipatuko zenduke zuen ekipoaz?

Batez be, igarri egiten dala herri bat dekogule gure taldean atzean. Euskal Herriko ekipoa da, eta hori ikusi, igarri egiten da. Bai karreretan, bai entrenamentuetan... Ganera, danok bertakoak izakeran be, oso giro ona sortzen da.



CAFE BAR  
**BAR FERNAN**

Gorbeia Kalea, 4  
Teléf. 94 452 09 28  
48170 - ZAMUDIO

Bar - Restaurante



*Balgerri*

1. gunean marra  
biela bereziak  
Preziozkoak

Polig. Industrial Tolosaerri, Parcela 8 - Nave 3 - 48170 ZAMUDIO  
Tel. 944 323 853 • Fax 944 323 176



**Vertigo**

GONZALO TERREBATXOK  
Direktorea-Propietaria

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Industria, Turismogintza, P. A. B.  
HERTZOG GONZALO TERREBATXOK  
C/Ind. Tolosaerri, 8-3-48170 Zamudio  
Tel. 944 323 853 • Fax 944 323 176

*"Hau da nire taldea eta nire helburua hemen jarraitzea da. Ahal doten guztie egingo dot holan izateko"*

**lazkoa, urte oso garrantzitsua izan zan Euskadi Euskaltelentzat. Laisekak, adibidez, erakustaldi ona egin zuen. Zu bere laguna zara, zelakoa da Roberto Laiseka?**

Laiseka da korredore bat, asko sufritu eta gero heldu dana heldu dan tokira. Benetan esfortzu handie egin deuen txirrindularia da. Hasieratik dau ekipoan, lehenengo urtetik eta askorentzako eredugarrie be bada. Asko poztu nintzan Tourrekoa ikusita. Ondiño be, txirrindulari gazteen ondolan gehien egoten dana bera da, beti dau jentea laguntzeko prest. Txirrindulari handia eta pertsona handiagoa da Roberto Laiseka.



**24 txirrindulari zagozie taldean, badago danak korritzeko beste karrera?**

Bai, azken baten danontzako probak dauz. Normalean, ia batera bi karrera edo buelta egoten dire, eta 16 txirrindulari ia segiduan ibiltzen dira batetik bestera. Lesionatuena egonda edo beste edozergatik, danontzako aukera egoten da. Zentzu horretan, ondo moldatu gara.

**Hau, zure azkeneko urtea da Euskaltelen, ze asmo?**

Laugarren urtea da, baie nire helburue hemen jarraitzea da. Hau da nire taldea, eta nik hemen jarraitu gure dot. Ahal doten guztie egingo dot holan izateko. Urtea lasai hasi dogu, izen be iezkoa itzela izen zan. Tourrean sartu gurean, topera ibili gintzezan karrera guztietan. Nik 70 karreara inguru ein nituen iaz. Aurten lasaitxoago hasi gara, puntuekaz zoratu barik. Eta Tourrera be joango da taldea. Ikusiko dogu. Urte polite izengo da duda, barik.

*Testua: Patxi Gaztelumendi*

**Loroñon herriko txirrindularia**

Txikitatik oso bizikleta zalea izan da Mikel Artetxe. Aite be bizikletan ibilitakoa izenda, zaletasune etxean. Mikelegaz batera, Xabier bere anaia be beti bizikletan ibili da.

Mikelek profesioaletara salto egin arte, beti bere ekipoetan eduki deu anaia. Xabier oin, Kirol zuzendaria da Olarra taldean. Urtero afizionatuetan dagoen talderik onena. Eta etxean, zelan ez, ez dau bizikleta kontue besterik. Mikelek, gogokoen dituen txirrindulariak ez dagoz pelotoian. Jalabert eta Sean Kelly ditu gogoko. Baina, berak be, goi mailako txirrindulari askoren ondoan korritzeko aukera izan deu.

Larrabetzuarra izanda, Loroñoren herrikoa dala esango dotzie askok... eta Larrabetzun beti egon da egon, txirrindularitza zaletasana. Gehiago edo gitxiago.

Oin be, Mikel Artetxen inguruen talde bat osatu da, eta datorren martxoaren 9an adibidez, Loroñon omenez urtero egiten da txirrindularitza froga ospatuko da Larrabetzun. 25 urtegez ondiño be etorkizune aurretik be badeko. Ia Loroñon bestekoa egiten dan.



**ZAMUDIO BERRIKO LURLANGILEEN ETXEA**  
 COOPERATIVA AGRARIA Y GANADERA DE ZAMUDIO BERRIKO  
 HANDEKUTARREN ZERBITZUA  
 Santi Mami, anaxia 1  
 Tfn: 94 454 18 96  
 Fone: 94 454 17 11  
 48100 ZAMUDIO BERRIKO (Bizkaia)

**SANTI MAMI**  
 ALBAILARITZA  
 Telefonoa 94 454 18 77  
 Alface telefonoa 94 454 20 15

**ARDO KATA IKASTAROA**  
 Mikel Garazabaldegaz  
 Martxoaren 5, 6 eta 7an  
 Zamudio Oinetan  
 Izen emateko 94 452 02 04

Itxialdi  
**MAITE ARISTEGI**  
 "Buztinak zehaztasun eta erakusketan"  
 Martxoaren 12an, asteartekoa 20:00etan  
 Zamudio Oinetan

**BERTSO AFARIA**  
 ETXANJUN LEKUE  
 IGOR ELORTZA  
 UNAI ITURRIAGA  
 Martxoaren 23an, ostekoa, Oinetan  
 Txandak herriko denda, izen emateko 94 452 02 04

**LX GX TXB**  
 ZAMUDIO BERRIKO  
 GAZTIA  
**zamudion osheras?**  
**heba ez!**

**FOTERI TABERNA**

Andra Mari Kalea, 22  
 Telefonoa 455 80 98  
 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

**HACKERS**  
**CIBER**

- ON LINE JOKUAK
- CHAT-AK
- WEB ORRIALDEAK

MIKEL ZARATE, 3 (CORREOS AURREAN) BONDINA  
 TELEFONO: 94 453 75 78

# EUP! KANTEU ALA ERREZEU?



Loiuko jubilatuek Agate Deuna egunean batzen duten dirua DYA-ri ematen diote



Derioko Sutondoan elkarteko emakumeek hiru urte daramatzate egun honetan abesten



Lezaman, hamazortzi urteko mutilak etxe doaz diru eske

Agate Deunaren ohorez –edo egun hori aitzakia hartuta– ospakizunak egin dira Euskal Herriko hainbat lekutan. Txorierrin be modu batean edo bestean eutsi deusagu tradizioari. Aurten be, koplak zaharrak entzuteko aukerea izan dogu herri guztietan.

Alde batetik, eskoletan egin dabe, gure herriko beste ohitura eta kultur adierazpenakaz egiten daben legez. Egunaren esangurea ikasle eta gurasoei azaldu, koplak ikasi eta, berriz be, gure herrietako kale-etatik izan doguz eskola-umeak, maisu-maistrakaz. Holan jarraitu dagiela hemendik aurrera be.

Beste alde batetik, gazteak eta nagusiak helburu eta modu desberdinetan ospatuten dabe. Aurten be holan izan da:

**Loiun**, 25-30 jubilatutako ibili dira kantari, azkeneko zazpi urte honeetan egin daben moduan. Orain hogeita hamar urte inguru galdu zan kintoak kantetako ohitura. Urte batzutan ez zala egiten ikusita, eurak hartu eben Santageda kantetako ardura. DYako anbulantzia lagun harturik ibili dira, izan be, batutako diru guztia alkarte horri emongo jako, laster egingo dan ekitaldi baten.

**Sondikan**, urtero legez, Sondikako futbol klubekoak ibili ziran kalez kale, otsailaren 3an, domekaz.

**Derion** be, Loiun galdu zan sasoian galdu zan kintoen ohitura. Urte batzuk inork urten barik igaro arren, domekan Iparralde abesbatzekoak ibili ziran eta, astelehenean. Sutondoan emakumeen taldekoak zabaldutako koplak azken hiru urteetako moduan.

**Zamudio, Lezama** eta **Larrabatzun**, gerra ostetik datorkun ohiturari eutsiz, aurten be kintoak izan doguz koplak kantetan kalez kale eta baserri baserri. Hainbat urtetan kintadatik kintadara pasatuz gorde dira koplak (Larrabatzun bost urterik hona asmatutako koplak barri bat be kantetan dabe). Baserriak oso zabalduta dagozala eta, ahal danean, behintzat, talde bitan egiten da ibilbidea. Goizaldean kantetan hasi eta batzutan ia goizaldean bukatuten da. Ezin ahaztuteko eguna pasetan da, baina benetan neketsua.

Aurten Zamudion 13 lagun ibili dira Agate Deunaren bezperan, Lezaman 8 eta Larrabatzun 11. Zinta gorri, berde eta zuriz apaindutako txilindun makilatarrakaz eta betiko jantzikera bardinagaz: abarkak, mahoizko frakak, garrikoa, alkondara zuria, kuadro urdindun bruxa (Lezaman dirua batzen dauan sakeladunak baltza daroa), amak, arrebak edo neska lagunaren painelua eta txapel baltza. Hilabete inguru emoten dabe entsaioak egiten, Zamudioko kasuan aurreko urteetako irakasleakaz.

**Giber Deno**  
MUNGIALDE, 11 - MUNGARA BIDEA  
94 454 07 01  
LITORRI IKUSTERA. LE ZARA DAMUTUKO!

**HARAGITZEA**  
**ALBERTO**  
Txorierrin etorbidea, 6  
Telf.: 452 08 25  
40016 ZAMUDIO (Vizcaya)

**ATARRABI**  
ETXEBERRIARI, 11 - 48150 Sondika  
Tlfnoa.: 944 521 928

# Txorierrri guztian ospatu da Agate Deuna

Kintoak kantetako ohitureari eutsi egin jako herri honeetan, baina aldatu dira gauza batzuk. Batuten zan dirua (antza danez, hemendik etorri leiteke kintoena) soldaduzkara hainbeste denpora etxetik urrin joiazanei laguntzeko erabilten zan, gerra ostean baserrietako bizimodu eta egoera gogorra zalako. Geroago, eguneko bazkaria eta afaria ordaindu eta gaisetizkoa, beharizana eukenei emoten jaken (Santamañeko ospitalea, etxe erreak eta herritarrei laguntzeko...). Gaur egun, batutako dirua, kintoen bazkari eta afarietan doa.

*“Aintzinean kintoek batzen zuten dirua, soldaduzkara denbora luze-rako joiazanei laguntzeko erabiltzen zan”*

*“Aurtengo nobedaderik aipagarriena, neskak kantetan ibili direla da”*



Larrabetzun, neska eta mutilek elkarrekin abestu dute aurten



Zamudioko gazte hauek gogor prestatzen dituzte egun honetako ekitaldiak

## Kintoak barik, hamazazpikoak?

Orain arte, Kintoen tradizioa aitatu dogu, baina aurten Larrabetzun neska bi be ibili dira taldean, eta dakigunagaitik Zamudion be, neskak urten gura izan dabe. Hau da nobedaderik aipagarriena. Euskal Herrian, aspaldi emon geinkean amaitutzat soldaduzkea, baina gaur egun, legez dago kenduta. Kintoak errekluten kajan sartzen zirenak ziren. Beraz, ez dago kintorik; 17 urteko mutilak dira kantetan dabenak. Pentsatzeko momentua izan leiteke, hona hemen galdera batzuk. Zergaitik ez 17 urteko

neska-mutilak? Herri txikiak doguz gureak, neska-mutilak batera hazi eta hezita, berdintasunari buruz hainbeste berba egiten dogun sasoi honetan, badau zentzurik egoera hau mantentzeak? Euskal Herriak soldaduzkeari lepoa emon eutsan moduan, ez ete deusagu lepoa emon beharko harek ekarri eban kintoen kontzeptuari be, eta ohiturearen alderik onena gorde, hau da, sasoi bateko gazteak batu Agate Deunaren bezperan koplak kantetako? Beste hainbat gauzagaz egin dogun moduan, ez ete gara gai izango, denporetara egokituz, tradizioari eusteko?

LIBURJARDINA PAPERJARDINA  
**ZAMUDIO**

Urbasa kalea, 5  
Telefono / Fax: 94 462 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**LEJARRENE  
JATETXEA**



GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46  
LEZAMA (BIZKAIA)



OKINDEGLA - DASTALEKUA

Aretxalde, 64  
Ieft.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

# Sukaldaritza

## Oilaskoa Euskal Herriko erara

### Osagaiak 4 laguntzat:

- oilasko handi bat
- basokada bat koñak edo ardo zuri
- 100 gr. urdaiazpiko egosi
- 2 tomate handi
- tipula handi bat
- 2 berakatz atal
- 2 piper (berdea eta gorria)
- koilarakada handi bat olio
- gurin bolatxo bat
- gatza
- piper zuri xehatua



Oilaskoa zatitu eta gatza eman ondoren, kazola batean gurina eta olio jarri eta oilasko zatiak bertan frijitu, gorritu arte. Ur apur bat eta koñaka edo ardo zuria bota eta ordu erdi bat egosten eduki, oilaskoa samurtu arte; eginda dagoenean geroko gorde.


Zartagin batean tipulak, berakatzak, tomate zurituak (hazi barik), piper-xerrak (hazi barik, jamoia (zati txiki eginda) eta piper zuria nahastu. Egiten eduki samurtu arte.

Azpil batean lehen gorde ditugun oilasko zatiak ipini eta gainera bota zartaginean egindako nahaskina; jakiak mahairako prest ditugu.

## Arrozesnea

### Osagaiak 4 laguntzat:

- 4-5 koilarakada arroz
- litro bat esne
- 150 gr. azukre
- limoi bat
- 10 gr. kanela-hauts
- kanela zotz bat
- ura



Kazola batean esnea, kanela zotza eta limoiaren azala jarri, eta sutara eman. 5-6 minutu irakiten eduki. Beste ontzi batean arroza egosiko da uretan. Arroza egin ondoren, esnearekin eta azukrearekin nahastu eta minutu batzuez su txikian edukiko dugu dena. Gero, sutatik kendu eta hoztutakoan kanela hautsa botako diogu gainera.

Aitor Elicegui



### Foie eta sagarrezko gaileta kurruskaria

#### Osagaiak (4 laguntzat)

Ahate foie-grasezko 4 tako / 2 txerri-hanka, hezurra kenduta / Granny Smith sagarren 8 xafra, almibarretan / erromerodun ardo beltzaren erreduzioa / saltsa espainiarra, urritua / kalabaza-purea, Sechouan piperbeltzarekin.


#### Prestatzeko modua

Foie-a plantxan edo zartaginean gorritu dugu. Sagar gailetak hamabost minutuan lehortuko ditugu labean, 120° C-tan. Txerri-hankak xehatu eta saltsa espainiarrarekin loditzen utziko ditugu.

#### Aurkezteko modua

Plateraren hondoan, sehaska bat atonduko dugu txerri-hankekin eta gainera foie-a zabalduko dugu, nahikoa berotu ondoren. Gainera saltsa espainiarra, ardo beltzaren erreduzioa eta belarrak ezarriko ditugu, platera txukunduz. Azkenik, sagar gailetak ipiniko ditugu foie-aren gainean.



 **OPTIKA IKUSLAN**


Tietnurreko graduatunak  
Kontaktatu gaitzak  
Eguzkitako betaurrekoak  
Laguntza mugak.

Ouz kalea, 3. aldea. 91 452 28 18 ZAMUDIO

**ZAMUDIOKO ESTANKOA**

**Tabakoak, linbrea eta opariak**

Tafferi kalea. 5 ZAMUDIO  
Tfnoa: 91 452 12 73



**LARRABETZUKO ESTANKOA**

Tabakoak, prentsa, loteriak, kiniela...

Andra Mari kalea, 1. LARRABETZU  
Tfnoa: 944 558 110



# GOMENDIOAK

## LIBURUAK

### Bihotz Nahasiak

Fernando Morillo

Arg: Ibaizabal

Idazlan honetan, hamasei urte inguruko lau gazte aukeratu ditu idazle azpeitiar honek bere nobelako protagonista gisa. Bertan gazte horien arteko harreman nahaspilatsuetan sakontzeaz gain, polizi nobelen ukitua duen narrazio misteriotsua tartekatzen du.

### Beldurtia naiz. Eta zer?

Arantxa Iturbe / Mikel Valverde

Arg: Elkarlanean

Zortzi urtetik gorako irakurleei zuzenduta dago. Gaztetxoek izan ditzaketen konplexu guztiak uxatu nahian dabilen Elkarlanean argitaletxeko "Eta zer?" bilduma honetako kontakizunean, neskato bat larri dabil bere ikasgelako beste guztiak baino beldur kopuru gehiago duelako.

## DISKOAK

### Alanis Morissette-ren lehen singela salgai

Laster esku tartean izango dugun diskoaren aurrerapen singela Hands clean izeneko da eta bertan, Awakening Americans, Unprodigal daughter eta Symptomps izenekoak bestiak entzungo ditugu. Horretaz gain, disko berriaren grabaketa prozesua bilduko duen DVDa prestatzen ari da.

### COUNTHREE

Mikel Garikoitz & Denali

Country estilora ahalik eta gehien inguratzen saiatu da Mikel Garikoitz & Denali taldea "Counthree" izenburua daraman CDan, nahiz ez den hau bertan entzun daitekeen musika mota bakarra. Bere hirugarren diska den honek, hamabi kanta ditu eta musika Mikel Garikoitzek egin du. Kanten hitzak, berriz, Jesus Mari Mendizabal eta Xabier Gezala idazleak dira.

# DENBORA PASA

## MEZU EZKUTUA

Joko honetan letren ordean zeinu berezi batzuk jarri ditugu. Zeinu bakoitzari bere letra dagokio. Hasi konbinazioak egiten ea testua osatzen duzun. Gabriel Arestiren ipuin batetik hartua dago pasarte hau.

☆ G ☆ N D E E \* ☆ J ☆ ☆ E G \* N E \* ☆ N ,  
 † E \* E † E \* \* S O ☆ ☆ ☆ O N P O N -  
 \* Z E N E \* ☆ ☆ \* O N \* Z E N  
 Z ☆ \* \* E N .  
 ☆ S \* E ☆ \* \* E ☆ N E G ☆ N ☆ ☆ O  
 P \* N \* \* G \* Z \* ☆ ☆ ☆ L ☆ \* N ☆  
 † ☆ L \* Z E N Z ☆ \* \* E N † E \* \* S O E -  
 \* ☆ N , † E \* \* S O ☆ ☆ E H \* N ☆ ☆ ☆ N -  
 \* \* E \* ☆ N , E \* ☆ ☆ ☆ N \* \* ☆ ☆  
 H ☆ M ☆ \* N ☆ .

☆  ☆  \*  \*  †  \*  ☆

## UMOREA

### Kara al sol

Mozkor bat joan omen zen taberna batera eta, barraren atzean, Francoren argazkia. Eta hantxe lau-bost basoerdi edanda zegoen eta Francoren fotografiari:

-Ka-ka-ka-kalamidadea! Zuregatik pasa genuen hainbeste gose. Ka-ka-ka-kalamidadea! Zuregatik ibili zen nire ama, bizkarrean zaku-patata egunero, egunero, egunero. Ka-ka-ka ka...

Eta bapatean

-Ka ka ka kara al sol con la camisa nueva...

Eta tabernariak:

- Baina ze, ze , ze... oraintxe kalamidadea eta kalamidadea aritu zara!

Mugitu egin dela iruditu zait eta!

## SOLUZIOA

A  ☆  I  ☆  
 U  \*  T  \*  
 B  †  R  \*  
 K  ☆

# AGENDA

## Zamudio

-Aconcagua - Zamudio 2002 espedizioaren hitzaldi-diaporama izango da otsailaren 27an, 19.30etan, Zamudioko Gazte Asanbladak antolatuta.

-Emakume langilearen eguna dala eta, kontzentrazio bat egongo da ONCEko kioskoaren alboan. Martxoaren 8an, 20.00etan, Zamudioko Gaste Asanbladak antolatuta.

-“II. Ardo Ikastaroa” egingo da Mikel Garaizabalen eskutik martxoaren 5, 6 eta 7an. Izena emateko, 944 520 204 telefonora deitu beharko da eta, gehienez, 24 laguneko taldea osatuko da. Bazkideek 10 euro eta bazkide ez direnek 20 euro ordaindu beharko dabe.

-“Baserriaren etorkizuna eta emakumea” hitzaldia emango du Maite Aristegik dorretxean. Ekitaldi hau martxoaren 12an izango da, 20.00etan.

-Bertso afaria, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue bertsolarien eskutik. Martxoaren 22an.

## Loiu

-Eskualdeko abere-azoka, Loiu Udalak antolatuta. Martxoaren 10ean eta 17an.

## Derio

-“II Dotorezia afaria” antolatu du Txorierriko AEK euskaltegiak, euskararen egoeraren inguruan hausnarketa egiteko. Martxoaren 1ean, gaueko 21:30etan. San Isidro jatetxean.

-Sutondoan etxekoandeen elkarteak aldarrikapen bazkari bat antolatu dau. Helburua, Derioko herria emakumearen egoera zein den ezagutu dezan da.

## Lezama

-Zabalik da Aste Santuko kolonietara apuntatzeko epea, 6 urtetik 16ra bitartekoentzat. Aurten, Baratze Ingurugiro Baserri Eskolara (Urdaibai) doaz. Izena emateko, 94 455 61 26 telefonon deitu behar da.

-“Molestias Klownicas” antzerkia eskainiko dute Oihulari Klownekoek datorren martxoaren 3an, 18:00etan (nagusiei zuzenduta eta gaztelaniaz).

-“Betiko eta betirako ipuinak” kontatuko ditu Ipuin Kontalari taldeak 6 urtetik goragoko umeentzat. Martxoaren 3an, 18:00etan.

-Zuhaitz eguna. Irteera Udaletxeko plazatik izango da, eta zuhaitzak landatu ondoren, Sasimartxoia egingo da. Martxoaren 10ean, 10:30etan.

-Udalak eskaintzen dituen ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago (apiriletik ekainera). Martxoaren 4tik 20ra arte eman behar da izena liburutegian.

## Larrabetzu

-“III. Jesus Loroño txirrindularitza txapelketa”. Klasika nazionala da. Elite eta sub 23 kategorientzako. Martxoak 9an Goiko Eleixaldetik irtengo da 15,00etan. Antolatzaileak: Mikel Artetxe txirrindularitza elkarte eta Laukiz F.T.



“II. Ardo ikastaroa” izango da Mikel Garaizabalen eskutik Zamudion



# **GZ PRINTEK**

San Martin, 153 – 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 452 08 59  
Faxa: 94 452 12 60



kultura  
sortzen dugu



kultura



BILBAC 700 • III. MILLEUIM.

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuelan jarri zen ditugu obra  
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.  
Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.  
Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.  
Hau da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk** =